



Hau gurutzea!
Arkeologia Artxuako
eliza zaharrean

¡Qué cruz!
Arqueología en la
antigua iglesia de Artxua



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



Hau gurutzea!

Arkeologia Artxuako
eliza zaharrean

¡Qué cruz!

Arqueología en la
antigua iglesia de
Artxua





Jardun integrala.

Artxuako Done Sebastian eliza gizarte eta kultura etxe bihurtzeko libratu zuen eraikina aurri egoeran eta ahaztuta geratzetik.

2013an hasitako zaharberitze lanak azterlan arkeologiko batekin batera gauzatu ziren, eta azterlan horrek aukera eman digu eraikinaren historia hobeto ezagutzeko.

Normalean, arkeologia iraganaren hondakinen bila lurpea induskatzearekin lotu ohi dugu; hala ere, metodo arkeologikoa eraikin baten eraikuntza faseak interpretatzeko ere erabili daiteke.

Artxuako Done Sebastian elizan, eraikinaren hormetan bertan eta elizaren barrualdeko zein kanpoaldeko zoruari egin zen azterketa arkeologikoa.

Una actuación integral.

La transformación de la Iglesia de San Sebastián de Artxua en un centro socio-cultural salvó el edificio de la ruina y del olvido.


Los trabajos de restauración emprendidos en 2013, se llevaron a cabo junto a un estudio arqueológico que nos ha permitido conocer mejor la historia del edificio.

Normalmente asociamos la arqueología a la excavación del subsuelo en busca de restos del pasado, sin embargo el método arqueológico puede ser usado también para interpretar las fases de construcción de un edificio.


En San Sebastián de Artxua el estudio arqueológico se llevó a cabo tanto en los propios muros del edificio como en el suelo del interior y del exterior de la iglesia.

█ Legearen babesa duen eremuaren muga (Balizko Arkeologi Gunea)
 Límite de la zona con protección legal (Zona de Presunción Arqueológica)


█ Kanpoaldean, ura eta argindarra kanalizatzeko hodiak jarriko ziren zonak induskatu zituzten .
 En el exterior se excavaron las zonas que iban a ser afectadas por las canalizaciones de agua y electricidad.



Elizaren teilatuan egindako sundaketa arkeologikoa
 Sondeo arqueológico realizado en el tejado de la iglesia



Hormetako orbainak irakurri, arkeologoak Artxuako Done Sebastian elizaren bilakaera berregiteko gai izan dira. Leyendo las cicatrices de sus muros, los arqueólogos han podido reconstruir la evolución de la Iglesia de San Sebastián



Zaharberitze lanei esker hormetako estalduretako batzuk berreskuratu dira; nabarmenenak, harlandu zatikatuetako pinturak, ohikoak XVI. mendean.

Gracias a los trabajos de restauración se recuperaron algunos de los revestimientos de sus paredes entre los que destacan

Indusketa Arkeologikoa

Beste eliza batzuk bezala, Artxuako Done Sebastian eliza ere hilerrizat erabili zuten XIX. mendean ondo sartu arte.

Elizaren barrualdean, ehorzketak batez ere Aro Modernoan egin zituzten (XVI. mendetik XVIII.era bitartean). Gehiago dauden arren, zazpi hilobi oso soilik induskatu zituzten.

Kanpoaldeko hobiak zaharragoak dira, Erdi Arokoak, eta eraikuntza zainduagoa erakusten dute; harlauzaz egindako kutxak bezalakoak dira. Hilobien ia erdiak hondatu egin ziren, elizako lanen ondorioz edo berrerabiltzeko.

La excavación arqueológica

Como otras iglesias, la de San Sebastián de Artxua sirvió de cementerio hasta bien entrado el siglo XIX.

En el **interior de la iglesia** los enterramientos fueron realizados principalmente durante la Edad Moderna (siglos XVI al XVIII). Aunque existen más, sólo se excavaron siete sepulturas completas

Las **tumbas del exterior** son más antiguas, de época medieval, y presentan una construcción más cuidada, creando una especie de caja con lajas de piedra. Casi la mitad de las sepulturas habían sido alteradas bien por las obras de la iglesia, bien para ser reutilizadas.



Eliza barruan aurkitutako objektuen artean, nabarmentzekoak dira Marina eta Sebastian santuen tailuak. Egoera txarrean zeudenez, berreskuratzeko jo ziren eta aurkitu zituzten lekuan bertan utzi zituzten.

Entre los objetos encontrados en el interior de la iglesia destacan las tallas de los santos Marina y Sebastián. Debido a su mal estado de conservación se dieron por irrecuperables y se dejaron en el mismo lugar donde se encontraron.



Aldareko gurutzea

Artxuako Done Sebastian elizan objektu liturgikoak aurkitu zituzten. Zenbait arrosario topatu ziren defuntuen eskuetan, bai eta ohiz kanpoko objektu bat ere: aldareko gurutze bat.

Gurutze hori elizaren kanpoaldean lurperatutako pertsonetako baten izterrezurraren azpian agertu zen. Nahiz eta oso ohikoa ez izan jarrera horretan ehorztea, ematen du hilobia ez dela berrerabili eta, hortaz, ezin da baztertu gurutzearekin batera lurperatu zenik

Gurutzearen tipologia ikusita, badakigu XIII. mendetik XV.era bitartean fabrikatuko zutela, eta heldulekua izango zuela prozesioan eramateko, edo oinarria izango zuela, aldarearen gainean jartzeko.

Hil osterako objektuak

Iraganean, ohikoa izaten zen hildakoekin batera objektuak lurperatzea, haien bizimodua oroitarazteko edo beste munduan balia zitzaten. Hilobiratze ostilamendua oso desberdina izaten zen garai, kultura eta gizarte maila batean eta bestean, baina, oro har, kristautasuna sendotu ondoren, gutxienekoa baino ez zuten lurperatzen.



Hildako baten eskuetan aurkitutako arrosarioa, zaharberritu ondoren
Rosario encontrado en las manos de un difunto una vez restaurado

La cruz de altar

En San Sebastián de Artxua los objetos encontrados son de carácter litúrgico. Así, encontramos diversos rosarios en las manos de los difuntos, y como aspecto excepcional, una cruz de altar.

Esta cruz apareció bajo el fémur de uno de las personas enterradas en el exterior de la iglesia. A pesar de que su posición es poco común, la tumba no parece haber sido reutilizada, así que no podemos descartar que fuera enterrado con ella.

Por su tipología sabemos que debió de ser fabricada entre los siglos XIII y XV y que contaría con un mango para llevarla en procesión o una base para colocarla sobre un altar.

Objetos para después de la muerte

Es habitual que en el pasado se enterrara a los difuntos con objetos que recordaran su vida a o para que les sirvieran en el Más Allá. Estos ajuares varían mucho según la época, la cultura y la clase social., pero en general tras la consolidación del Cristianismo se redujeron a la mínima expresión.



Hirusta gurutzea da, letoiz egina (kobre eta zink aleazioa), baina gero urrez tatu eta gubilez apaindu zuten.

Aldeetako batean, erdialdean, Kristo Maiestatean figura dago grabatuta, eta lau ebanjelarien ikurrak (tetramorfoa) gurutzearen besoan muturretan:

- Lehoia, San Marko irudikatzen duena.
- Arranoa, Done Joan.
- Zezena, San Lukas; oraingo honetan itsatsitako ehun zati batek estalia.
- Giza irudia, Done Mateo.

Beste aldean landare irudiz apainduta dago, eta Kristoren irudia dauka hiru errematxeren bidez finkatuta. Irudi hori, ziur asko, geroago erantsiko zioten, eta horri esker jatorriz atzealdean zena piezaren alde nagusi bihurtu zen.

Se trata de una cruz trebolada realizada en latón (aleación de cobre y cinc), que después fue dorada y decorada a buril.

En una de sus caras aparece grabada la figura de Cristo en Majestad en el centro y los símbolos de los cuatro evangelistas (tetramorfos) en los extremos de los brazos:

- El león representando a san Marcos
- El águila de san Juan
- El toro de san Lucas, en este caso oculto por un trozo de tela adherida.
- La figura humana a san Mateo

El otro lado está decorado con motivos vegetales y tiene fijada mediante tres remaches la figura de Cristo, que probablemente sea un añadido posterior que convirtió el reverso original en la cara principal de la pieza.





Ohial mineralizatu zafia,
San Lukasen zezena ezkututzen
duena

Trozo de tela mineralizada que
oculta al toro de San Lucas





Artxuako gurutzearen zaharberritzea

Objektu arkeologikoak oso hauskorak dira eta onik zaintzeko tratamendua egin behar izaten zaie, halakoak errazago irakurtzeko, ahal den informazio guztia ateratzeko eta ondo zainduta egongo direla ziurtatzeko. Gainera, piezen osotasuna ahalik eta gehien errespetatu behar da, eta zaintze zientifikoaren irizpideei jarraitu behar zaie:

- Pieza eta egindako lana guztiz dokumentatu.
- Ahalik eta esku hartzerik txikiena egin.
- Tratamenduak jatorizko egoerara itzultzeko aukera eman dezala.

Artxuako gurutzeari egindako analisiari eta azterketa mikroskopikoari esker, hura fabrikatzeko erabili zituzten teknikak eta gurutzearen osatura identifikatu ahal izan dira. Letoizko euskarria iragazte bidez egin zuten, eta era mekanikoan landu zuten hotzean. Urreztaketa suarekin egin zen, merkurio amalgama erabiliz.



La Restauración de la Cruz de Artxua

Los objetos arqueológicos son muy frágiles y suelen requerir un tratamiento de conservación que facilite su lectura, extraiga toda la información posible y asegure su preservación. Además, debe respetar al máximo la integridad de las piezas y seguir los criterios de la conservación científica:

- Completa documentación de la pieza y del trabajo realizado.
- Mínima intervención.
- Reversibilidad del tratamiento.

Los análisis y el examen microscópico de la Cruz de Artxua permitieron identificar la composición y las técnicas de fabricación empleadas. El soporte de latón fue ejecutado por colado y trabajado de forma mecánica en frío. El dorado, se realizó al fuego con amalgama de mercurio.




Kristo Maiestatean irudiaren garbiketa erdia
Media limpieza del Cristo en Majestad

Tratamendua egiten hasi zirenean, gainazala lurrez eta korrosio produktuz estalita zegoen. Bisturiz garbitu zen, eta lan hori oso konplexua izan zen gainazala oso hauskorra zelako, korrosioaren ondorioz eta urre geruzaren azpian tarte hutsak zeudelako. Gune askotan, urre geruza galdua zegoen, eta beste batzuetan oso zaila izan zen berreskuratzea, erantsiago zegoelako estaltzen zuten kobreaken oxidoari, euskarriari berari baino.

Gurutzearen besoetako baten muturraren gainean, ehun zati bat gorde da, beharbada lurperaturen baten hil oihalarena edo janzkiarena. Ehun zati hori korrosioari berari esker mantendu da, korrosioak biozida eragina eta eragin mineralizatzailea duelako hondakin organikoetan, eta usteltzea saihesten du.

Garbitu ondoren, gurutzea kimikoki egonkortu zen, eta erretxina akrilikoz eta argizariz babestu zen. Orain, korrosioa berraktibatu ez dadin, pieza ingurumen baldintza egoki eta egonkorretan eduki beharko da.



Lagin baten estratigrafia
Estratigrafía de una muestra

Al iniciar el tratamiento la superficie estaba enmascarada por tierras y productos de corrosión. Se realizó una limpieza con bisturí que resultó muy compleja dada la fragilidad de la superficie, originada por la corrosión y las zonas huecas existentes debajo del dorado. En muchas áreas, la película de oro estaba perdida y en otras fue muy difícil de recuperar al estar más adherida al óxido de cobre que la recubría que al propio soporte.

Sobre el extremo de uno de los brazos de la cruz se conserva un fragmento de tejido, procedente tal vez del sudario o de la vestimenta de alguno de los enterrados. Éste se ha preservado gracias a la propia corrosión, que ejerce una acción biocida y mineralizadora sobre los restos orgánicos y evita su pudrición.

Tras la limpieza, la cruz se estabilizó químicamente y se protegió con resina acrílica y cera. Ahora, para evitar la reactivación de la corrosión, la pieza deberá mantenerse en unas condiciones medioambientales

Testuak / Textos

Ondare Babesa S.L

Bibat Museoa-Arkeologia (AFA/ DFA)

Zaharberrikuntza Zerbitzua (AFA) / Servicio de Restauración (DFA)

Irudiak/ Imágenes:

Ondare Babesa S.L.

Zaharberrikuntza Zerbitzua (AFA) / Servicio de Restauración (DFA)

Bibat Museoa-Arkeologia (AFA/ DFA)

Croma

Itzulpenak/ Traducciones

Euskara Zerbitzua (AFA) / Servicio de Euskera (DFA)

Diseinua/ Diseño:

Gorka Otsoa de Alda

Argitaratzea eta imprimaketa / Edición e Impresión

Arabako Foru Aldundia. Diputación Foral de Álava.

*LEGE GORDAILUA / DEPÓSITO LEGAL***VI 257-17****BIBAT Arkeologia Fournier de Naipes Museoa**

Aiztogile kalea, 54 Calle Cuchillería, 54

01001 Vitoria-Gasteiz

945 20 37 07 945 20 37 00

bibat@araba.eus

Ordutegia / Horario**Asteartetik ostiralera** 10.00 - 14.00 / 16.00 -18.30 Martes a viernes**Larunbatetan** 10.00 - 14.00 Sábados**Igande eta jaiegunetan** 11.00 - 14.00 Domingos y festivos**Astelehenetan, jaiegunak izan ezik, itxita.** Lunes, excepto festivos, cerrado